# NUEVOS EXTRACTOS

## DE LA
## REAL SOCIEDAD BASCONGADA
## DE LOS
## AMIGOS DEL PAÍS

Discursos pronunciados con motivo del Acto de Ingreso como Amigo de Honor de
NEREA ZUBIZARRETA

Suplemento 17-G del Boletín de la RSBAP

**DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN**
**2003**



Nerea Zubizarreta

# PALABRAS DE RECEPCIÓN

Mitxel Unzueta

En la Asamblea de la RSBAP, que hoy estamos celebrando en Azkoitia, nuestro Director, D. José Mª Urkia, me ha concedido el privilegio de intervenir en el acto de recepción de Dª Nerea Zubizarreta Artetxe, como Amigo de Honor de la Bascongada.

Agradezco al Director, la oportunidad que me da, de manifestar públicamente mi admiración y mi cariño hacia una persona, que estoy orgulloso de haber conocido y disfrutado, con su trato.

Presentar en este Salón de Plenos del Ayuntamiento de Azkoitia, a Dª Nerea Zubizarreta, que ha estado doce años al servicio del pueblo, ocho de ellos ejerciendo las responsabilidades de Alcalde, es algo que per1enece al reino de lo innecesario.

Nerea Zubizarreta, es parte sustancial de Azkoitia y, este Salón de Plenos, es testigo perenne de su capacidad de ejercer la autoridad, no desde el rigor, sino desde la persuasión y el diálogo.

Ahora, Nerea, has terminado –quizás por el momento– tu actividad pública y estoy seguro que la ciudadanía de Azkoitia, sabrá agradecértelo.

Pero se da la circunstancia que aquí, en Azkoitia, nació la Bascongada, precisamente en este mismo Salón de Plenos y,

también aquí, en Azkoitia, sigue estando erguido, como testigo de la mejor historia vasca, el Palacio de Insausti.

Lo que acabo de expresar, constituye, sucintamente expresado, la clave para entender el porqué de este acto de reconocimiento y agradecimiento de la RSBAP, a la persona de Dª Nerea Zubizarreta, mediante la nominación de Amigo de Honor.

Sabía del buen hacer de Nerea Zubizarreta, pero fue cuando, como Director de la Bascongada, pude constatar que, las palabras, eran cortas para expresar su capacidad de acción y entusiasmo.

Como Director de la Bascongada, tenía la preocupación de impulsar y conseguir, que el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, tomara conciencia de la necesidad de iniciar la reconstrucción del Palacio de Insausti.

Sin entrar en detalles, al final, se llegó a celebrar, en la sede de la Consejería de Cultura, una reunión, con la presencia del Viceconsejero y de personas de su equipo.

Fueron las primeras horas de la mañana, de un día oscuro y desapacible. Allí estaba, también, Nerea Zubizarreta.

Fue una reunión larga y amable, en la que se debatieron los peros y contras de un tema, difícil de enfocar. Mis argumentos se centraban en los riesgos de ruina, si no se actuaba con rapidez y en la improcedencia de mantener, en el estado actual, un edificio que representaba lo mejor de la ilustración vasca; todo un símbolo.

Estando muy avanzada la reunión, ésta se interrumpió unos momentos, por una llamada al equipo de Gobierno. En ese momento, con una voz suave, pero de una seguridad infinita, Nerea me dijo textualmente: "Mitxel, tenemos que salvar Insausti, como sea. Así no se va a quedar".

En ese instante comprendí, tuve la evidencia, que así iba a ser; que Insausti, ya se había salvado porque ya habla una Autori-

dad que estaba asumiendo esa responsabilidad. Fue algo así, como si hubiera sentido una revelación.

Desde aquel momento, la iniciativa moral estuvo en manos de Nerea Zubizarreta. El apoyo de la Consejera, Dª Mari Carmen Garmendia y su equipo, fue un hecho.

Desde entonces no ha habido obstáculo en el que Nerea Zubizarreta no haya colaborado, activamente, en su superación.

Desde los problemas más pequeños, hasta las grandes cuestiones del proyecto, todo, absolutamente todo, ha tenido también, el impulso de Nerea Zubizarreta.

La Bascongada de hoy, y la del mañana, toda ella, debe saber que si nuestro edificio emblemático se ha salvado, es por un conjunto de esfuerzos y voluntades, entre las que sobresale, la de Dª Nerea Zubizarreta.

Xabier de Munive fue, como tú, Alcalde de Azkoitia y él se paseó por este salón, cavilando sobre el futuro de Euskalherria.

Estoy seguro que, desde algún espacio, que no está al alcance de nuestra mano, estará expresando su inmensa satisfacción por lo que tú has hecho, por su viejo Palacio, por la Bascongada y por Azkoitia.

Por todo este conjunto de circunstancias, nosotros, la Bascongada de hoy, hemos sentido el impulso, la necesidad, de reconocer tus desvelos y, sobre todo a tu persona.

Lo hacemos con la más alta distinción que está al alcance de nuestras manos. Nombrándote Amiga de Honor.

El agradecimiento es una virtud cívica, que obliga a la Bascongada.

Este reconocimiento lo va a materializar nuestro Director, que es la autoridad a la que le corresponde hacerlo. Él te va a nombrar Socio de Honor.

Hasta aquí, he cumplido el encargo recibido.

Ahora,a título personal, quiero decir también algo más.

Querida Nerea, ser Amigo de Honor de la Bascongada es una gran distinción, pero no una distinción decorativa, vacía. No es una medalla que se recoge y se guarda. Es algo más. Es asumir el compromiso de trabajar por el País.

La Bascongada no tiene ningún secreto oculto. No es una sociedad iniciática, ni tiene papeles reservados. Es un estado de ánimo y un sentimiento de responsabilidad.

Es, simplemente, la unión de quienes tienen, como una de sus grandes preocupaciones, el bien del País. Trabajar, por conseguir lo mejor para Euskalherria.

Nuestros fundadores, con el estilo barroco de la época, pensaron y escribieron las ideas claves que constituyen nuestra razón de ser.

Nos advirtieron que ser de la Bascongada representaba el compromiso de adquirir "mayores obligaciones", para: "... infundir a nuestros conciudadanos un amor grande a la virtud y a la verdadera sabiduría, y un odio mortal al vicio y a la ignorancia ..."

También, constituía parte de esas mayores obligaciones, el procurar: "todas las ventajas imaginables al País Bascongado".

Nerea, todo esto sigue teniendo plena vigencia. No es sólo parte de un ayer; es de hoy y todos tenemos que trabajar, para que también siga siendo una fuente de inspiración para el mañana.

Se nos pidió que amemos a "nuestro Patrio Suelo", que amemos "nuestra recíproca gloria", que amemos "al Hombre" y que nos "mostremos dignos hijos del País y dignos Amigos de la Humanidad entera".

Esto es el "eman da zabalzazu, munduan frutua". Lo más puro y humano, del pensamiento vasco.

Con otro estilo, literario, el poeta Gabriel Celaya, ha escrito así, lo que es la Bascongada:

"Los Caballeritos
que desafiaron
con gesto elegante
lo inerte y lo opaco

Los Caballeritos
de Azcoitia: La luz
que torea el hecho
bruto de un testud

Los Caballeritos
..........................
Piensan lo posible
y es real lo exacto

Los Caballeritos
de Azcoitia: La paz
de la inteligencia
y de la equidad

Los Caballeritos
de Azcoitia en la
flor rezan trabajando,
tejen luz de sol

Los Caballeritos
de Azcoitia: El honor
de cuantos luchamos
por algo mejor

Los Caballeritos
de Azcoitia: el dolor
de los progresistas
dando corazón"

Nerea, tú sabes lo que es esto.

Sé muy bien Nerea, que piensas así. Para ti ser de la Bascongada no es un compromiso. Es parte de tu propia personalidad.

Por ello quiero decirle a la Bascongada, que la llegada de Nerea Zubizarreta es un motivo de alegría; nos enriquecemos con tu presencia.

Nos aportas tu prudencia, tu sabiduría, tu constancia, tu discreción, tu dulzura, las grandes virtudes del mundo femenino vasco, que es nuestra última esencia, porque los vascos, que con demasiada frecuencia presumimos de rudos, sólo podemos entendernos, desde la aceptación de nuestro engarce, en el mundo telúrico femenino.

Dicho esto, sólo me queda añadir:

"Nerea Zubizarreta: ongi etorri" Eskerrik asko,

## HARRERA HITZAK

Mitxel Unzueta

Gaur Azkoitian RSBAP /EAE. ospatzen ari den Asanblea honetan, ohore handia da niretzat Nerea Zubizarreta, Adiskideen Elkarteko Ohorezko Adiskide izendatze sarrerako hitzak nire esku uztea.

Eskerrik beroenak Zuzendari jauna, aukera paregabea eman baitidazu Nerea Zubizarretari diodan nire mirespena eta maitasuna publikoki adierazteko. Harro nago bera ezagutu izanaz eta bere tratuarekin aberastu izanaz.

Azkoitiko Udalan Nerea Zubizarreta aurkeztea, alper lana iruditzen zait, izan ere 12 urteen buruan buru-belarri aritu baita Udal honetan lanean, haietatik zortzi urtetan alkate.

Nerea Zubizarreta Azkoitiko mami barnean dagoen pertsona da eta une honetan gauden Areto Nagusi hau da berak urteetan zehar agintearen modu ez zorrotz baina bai arrazoiz eta elkarrizketaren bidez eraman duenaren testigu.

Baina Azkoitia askoz gehiago da guretzat, izan ere une honetan gauden areto honetan bertan sortu baitzen Adiskideen Elkartea eta herri honetan bertan baitago zintzo eta sendo eraikia Insaustiren Jauregia.

Hitz laburretara joaz, esan berri ditudan hitzetan laburtzen da gaurko nire onespen eta EAEko oniritzia Nerea Zubizarreta Ohorezko Adiskide izendatzean.

Jakin banekien Nerea Zubizarretaren berri, baina Adiskideen Elkarteko Zuzendari izan nintzenean, nire iritzia txikia geratu zen Nerearen lanerako indarra eta ilusioa ikusi nituenean.

Zuzendari izan nintzen garaian guztiz egokia zela iruditu zitzaidan Insausti Jauregia berritzea eta horretarako beharrezko zela Jaurlaritzako Kultura Sailak horren kontzientzia eskuratzea.

Ñabardurak alde batera utzita, lortu genuen Kulturako Kontseiluarekin bilera egitea eta bertan egon ziren Kontseilari-ordea eta bere taldeko hainbat lagun.

Oraindik ere gogoan daukat egun hura, giro aldetik iluna eta desatsegina izan baitzen. Han zegoen Nerea Zubizarreta.

Bilera luzea eta erosoa izan zen eta bertan gure asmoaren inguruko alderdi on eta txarrak eztabaidatu ziren. Nire arazo larriena zen Jauregiaren egoera txarra, hondatzeko zorian baitzegoen eta hori larria iruditzen zitzaidan gogoan izanik etxe hark islatzen zuela Euskal Ilustrazio Garaiko arorik onena; sinbolo bat zela, alegia.

Bilera aurrera zihoala, Jaurlaritzatik egindako dei baten aitzakian bilera moztu beharra izan genuen. Une horretan, bigun, baina ziurtasunez betetako ahotsez, zera esan zidan Nereak testualki: "Mitxel, nola edo hala Insausti salbatu behar dugu. Ez da honela geratuko".

Une horretan guztiz konbentzitu nintzen, banekien ziurtasun osoz Insausti salbatuko zela eta tartean Autoritatearen indarra zegoela babes ematen. Nola esan, errebelazio bat iruditu zitzaidan.

Gerora asmoaren indar morala Nerea Zubizarretagan egon da. Eta zer esanik ez, Mari Karmen Garmendia Kontseilariaren apoioa bete-betea izan zen.

Geroztik aurrez jarri zaizkigun oztopo guztiak gainditzeko hor egon da Nerea Zubizarreta, beti lanean.

Arazo txikienek, larrienek, proiektuaren atal nagusienek, denek izan dute Nerea Zubizarretaren bultzada.

Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak, bai gaurkoak nola biharkoak, garbi eduki behar da zergatik salbatu den gure eraikin nagusia, askoren ahalegin eta borondate osoa tartean egon dela eta horien artean erraldoia izan da Nerea Zubizarreta.

Xabier de Munibe, zu bezala, andere, Azkoitiko alkate izan zen eta berak ere eman zituen hamaika itzuli areto honen barnean gure Euskal Herriaren etorkizun hobe baten bila.

Ziur nago, bera dagoen lekuan dagoela ere, txit harro sentituko dela, pozez beterik zuk jauregiaren alde egin duzun lanarengatik, bere Jauregi zaharrengatik alegia, Elkartearengatik eta Azkoitiarengatik.

Horregatik guztiagatik, guk Adiskideen Elkartekoak beharrezkotzat, derrigorrezkotzat jo dugu zure ahalegin hori nolabait eskertzea.

Gure esku dagoen Goraipamen Nagusienaren bidez egin-nahi dugu: hain zuzen, gure Ohorezko Adiskide izendatzea.

Ondo jaioa, esker onekoa izan ohi da eta Adiskideen Elkartea ere hala sentitzen da.

Errekonozimendu hau Zuzendariaren eskutik egingo dugu, bera baita gure arteko autoritate nagusia eta berari baitagokio zeregin hori. Berak izendatuko zaitu Ohorezko Bazkide.

Honera arte, beraz, niri zegokidana.

Orain, nire aldetik, zertxobait gehiago ere esan nahi dizut.

Nerea Adiskidea: Elkarteko Ohorezko Adiskide izatea ez da hitz hutsetan geratzen den ohorea, ez da apaingarri huts, jaso eta bazter batean gordetzen den medaila.

Askoz gehiago da.

Herriari begira konpromisoak hartzea da.

Elkartea ez da sekretuz beteriko taldea, dena begi bistan dago gure elkartean.

Elkartea, norbanakoaren barne egoeran gauzatzen da, arduraren sentikizunean.

Sinpleki, gure herri honen ongia, bakea, lana lortu nahi duten pertsonen arteko taldea da.

Gure fundatzaileek, garaiko hitz barrokoak erabiliz, erabaki eta idatzita utzi zituzten gure izaeraren arrazoi diren oinarriak.

Garbi esan ziguten gure Elkarteko partaide izatea, "betebehar handiagoak" hartzeko hitz ematea da: "era horretan gure herritarrei ongizatera eta benetako jakinduriara bultzatzeko, eta era berean grinak eta ezjakintasunak baztertzeko…"

Betebehar horien tartean, besteak beste: "gure herriarentzat irudika ditzakegun abantaila guztiak lortzen saiatzea".

Nerea, hau guztia indarrean dago oraindik. Ez da atzoko kontua bakarrik; gaurkotasunez beterikoa da, denon gaurko lana behar dugu gure geroa, etorkizuna era guztietako aberastasunen iturri izan dadin.

Gauza asko esan zizkiguten: "maitatzeko gure herria", bilatzeko "gure arteko ongizatea", maitatzeko "gizasemea" eta izateko benetako herriko seme eta benetako Adiskideen Elkarteko partaide"

Hau da "eman da zabal zazu munduan fruitua". Euskaldunon izaeraren alderdik garbiena eta gizatasunena.

Beste hitzak erabiliaz, hitz poetikoen bidez deskribatu zuen Gabriel Celayak gure Elkartea. Horra:

Zalduntxoak ausarki
Apustu garbian
Alde ilunak jarri
Zituzten argiak

Azkoitiko zaldunak,
Buru ezjakinak
Bihurtu nahi zituzten
Bizi eta duinak

Azkoitiko zaldunak
Baldinezko gauzak
Bihurtu nahi zituzten
Erreal zehatzak.

Azkoitiko zaldunen
Bake eta adimena,
Oreka ziren haien
Dohainik onenak.

Azkoitiko zaldunek
Otoi lore bizi,
oial argiz betea
Dute eguzkiz josi.

Azkoitiko zalduna
Mundu berri bila
Ohorezko borrokan
Arduraz dabila.

Azkoitiko zaldunak
Bide berri urratzen
Aurrelari minean
Bihotza du jartzen.

Nerea, zuk badakizu zer den hau guztia.

Badakit, Nerea, zu ere iritzi honetakoa zarela. Zuretzat Adiskideen Elkartea ez da konpromisoa. Zure izatearen zati bat dela.

Horregatik, argi eta garbi adierazi nahi nioke Elkarteari, alegia, zure presentzia txit aberasgarria dela guretzat.

Zuk eskaintzen diguzuna dira: zuhurtasuna, jakinduria, iraupena, diskrezioa, leuntasuna, emakumeen munduko dohain miragarriak, izan ere, euskaldunok askotan zakar itxuraz agertzen garen arren, gure izaerak ez du zentzu osorik emakumeen eskaintzen duen mundu hori gabe.

Zer gehiago esan nezake?:

Nerea Zubizarreta: ongi etorri.